



Euskaltzaindiaren aldizkaria

Patxi Uribarren euskaltzain osoaren sarrera-ekitaldia

Maiatzaren 28an, Aramaion, egin zen Patxi Uribarrenen sarrera-ekitaldia. Uribarrenek “Zirelako gara, garelako izango dira” izenburuko hitzaldia eman zuen, eta Jose Luis Lizundiak eman zion erantzuna, “Ganbarruetatik Araba euskaldunera” hitzaldiarekin. Ekitaldia Ibarra elizateko San Martin elizan egin zen.

Zirelako gara, garelako izango dira

Ohiturak agindu bezala, berak daraman domina jantzi zuen aurreko euskaltzaina, Henrike Knörr, gogoan izan zuen Patxi Uribarrenek:

“Ez dut uste mundu zabalean, hizkuntzaren alde Euskal Herriak egin duen adinako ahalegina egin duen Herri asko izango denik”

Euskararen transmisioari buruzko gogoeta egitea helburu zuela, euskarak Aramaion egin duen ibilbideaz mintzatu zen Patxi Uribarren hitzaldian.

Aramaio mapan kokatu ostean, bertan egiten den euskararen berezitasun nagusiak aipatu eta XX. mendeko une historiko batzuk gogoan izan zituen euskaltzainak: Gerra aurreko egoera, gerrak ekarri zuena eta gerra ondoko giroa: “Euskarak izugarrizko zartada jaso zuen. Bat-batean moztu edo urkatu zuten ahalegin handiak egin bezalaxe berpizten ari zen euskararen aldeko mugimendu osoa. Euskarak mespretxu ugari eta pertsekuzio gogorra jasan zituen. Beraz, ez dezagun ahaztu, euskara gaur egungo egoera larri-urri handi batean, gerra ondoko errepresio horren ondorioz etorri dela”.

Hala eta guztiz ere, Patxi Uribarrenek esan zuenez, 1940tik 1960ra arteko Aramaion “euskarak, oztopoak oztopo, oso indartsu jarraitzen zuten Ibarren bertan ere, irakaskuntza eta admi-

nistrazioa gaztelania hutsean izan arren”. 60ko hamarkadan, baina, aldaketa sakonak gertatu ziren Aramaion, eta hamarkada horren amaieran Ibarreko kaleetan erdara nagusitzen ari zen. 1980tik aurrera, Patxi Uribarrenen esanetan, “euskarari lekua egin zitzaion irakaskuntza publikoan, administrazioan eta beste hainbat lekutan. Gertakari horiek eragina izan zuten Aramaion ere, hainbatean euskararen aldeko joerak indartuz”.

Bada Aramaion konponbiderako itxaropenik, Uribarrenek adierazi bezala. Herria UEMAn da, bertan euskararen ezagutza-maila oso handia da, euskararen alde lan egiten duten elkarteak badira... baina konpromezuak behar dira, eta inguruko udal ordezkariak zuzendu zitzaizkien, dei eginez “euskararen aldeko ahaleginetan batera jardutea, gure herriaren etorkizun euskalduna jokoan dugu eta”.

Azkenik, Euskal Herri osoan euskararen alde diharduten erakunde eta pertsonen lana eskertu eta euskaraz bizitzeko eskubidea aldarrikatu zuen: “Ez dut uste mundu zabalean, hizkuntzaren alde Euskal Herriak egin duen adinako ahalegina egin duen Herri asko izango denik”.

Ganbarruetatik Araba euskaldunera

Bere erantzunaren hasieran, Jose Luis Lizundiak euskaltzain oso berriaren ezaugarri pertsonal zein profesionalak nabarmendu zituen. Lizundiak Uribarrenek 60ko hamarkadan gauza-

tu zuen lanaren garrantziaz ohartarazi zituen bertan bildutakoak, garai hartan mezak euskaraz prestatzeko lehenengotariko izan baitzen, edota alfabetatze-euskalduntzean buru-belarri murgildu zelako. Halaber, ez zuen ahaztu nahi izan Patxi Uribarren Bizkaiko Foru Aldundiaren lehen itzultzailea izan zela. Uribarrenek Akademiarekin izandako harreman luzea ere azpimarratu zuen Lizundiak.

Berbaldiaren bigarren partean, berriz, Lizundiak Patxi Uribarrenen euskalkiaren eremua izan zuen mintzagai nagusi, “Arabian euskaldungoaren berezko eremua Aramaioko eremura mugatzen den topikoa gezurtatzeko”. Beronen esanetan:

“Gure hizkuntza propioaren geolinguistika ikuspegitik Arabaren euskal eremu garaikidea ez da hain txikia. Askoz zabalagoa da edota izan da azken mendean”


Etorkizunera begira, errealitate hori aintzat hartuta, euskararen normalizazioaren sustapena Euskaltzaindiaren eginkizuna ere badela uste du, eta Patxi Uribarrenen ekarpena ezinbestekoa izango dela aurrerantzean ere.

Patxi Uribarren eta Jose Luis Lizundia



WWW.EUSKALTZAINDIA.NET

Web-orrialde bistaratzeen grafikoa:



1) Bisitak, guztira

2) web-orrialde bistaratzeak:

Zuzeneko sarbideak webguneko atarira	15.546
Hiztegi Batua	80.156
Euskaltzaindiaren Arauak	6.684
OEH (Orotariko Euskal Hiztegia)	33.927
JAGONET zerbitzua	8.425
EODA (Euskal Onomastikaren Datutegia)	209.373
Argitalpenen katalogoa	2.904
Beste guztiak	78.870
Web-orrialde bistaratzeak, guztira	435.885

Ekaina

52.713

HITZARMENAK



Andres Urrutia, Albero Catalán eta Xabier Azanza

Nafarroako Gobernua

Apirilaren 28an sinatu zen Nafarroako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren arteko aurtengo lankidetzaren hitzarmena. Akademiaren izenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak sinatu zuen eta, Foru Gobernuaren izenean, Xabier Azanza Euskarabidearen zuzendari kudeatzaileak. Euren batera Alberto Catalán Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilaria izan zen.

- Hauek dira 2010. urteko eginkizun nagusiak:
- Euskal Corpus Onomastikoa: Nafarroari dagozkion lanei jarraipena ematea.
- Perpetua Saragüetari buruzko argitalpenaren prestaketa.
- Erregistro katalogafikoen zabalkunderako modulo informatikoa.
- *Elkartasuna* aldizkaria digitalizatzea.

Noticias de Gipuzkoa egunkaria

Ekainaren 16an, Euskaltzaindiaren Donostiako ordezkariak, lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten *Noticias de Gipuzkoa* egunkariak eta Akademiak. *Noticias de Gipuzkoa*ren izenean, Arantzazu Zugasti zuzendariak sinatu zuen, eta Euskaltzaindiarenean Andres Urrutia euskaltzainburuak.

Hitzarmen horren ondorioz, besteren artean, *Noticias de Gipuzkoa* egunkariak 2005. urtetik hona ekoiztu duen euskarazko testumasa osoa Euskaltzaindiaren eskuetan jarriko du, Akademiak Lexikoaren Behatokia deritzan egitasmoa garatu dezan.



Andres Urrutia eta Arantzazu Zugasti



Andres Urrutia eta Iñaki Goirizelaia

Euskal Herriko Unibertsitatea

Ekainaren 21ean, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak lankidetzaren hitzarmen berri bat sinatu zuten Euskaltzaindiaren egoitzan. EHUren izenean Iñaki Goirizelaia errektoreak sinatu du eta, Euskaltzaindiarenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak. Erakunde biok elkarren esku jarriko dituzte ikerketarako interesgarriak izan daitezkeen lan argitaragabeak, hala nola tesiak edo bestelako ikerlanak. Bestalde, EHUK eta Euskaltzaindiak bi urterik behin euskarazko doktorego-tesien Koldo Mitxelena sarietarako deia egiten jarraituko dute.



EUSKARAREN HERRI HIZKEREN ATLASA

Apirilaren 30ean, Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren I. eta II. liburukiak aurkeztu zituen Euskaltzaindiak. Bi liburukiok Euskadiko Kutxaren babesarekin argitaratu ditu Akademiak. Atlasa hiru euskarri desberdinetan eskaintzen da: paperean, CD formatuan eta sarean.

Hizkuntzaren ahozko aldaera desberdinak mapetan agerian emateko egiten dira hizkuntza atlasak. Hortaz, Euskararen Herri Hizkeren Atlasak (EHHA) ahozko euskararen aldaerak mapetan jasotzea du helburu. Euskaltzaindiak 1983an onartu zuen egitasmo hau, Markina-Xemeinen egindako Dialektologia Barne Jardunaldietan.

Euskararen Herri Hizkeren Atlasa egitasmoa egingo zela erabaki ondoren, 1984an prestatze lanak egiten hasi ziren. Hala, galdeketa puntuen sarea, galdesorta eta lan metodologia finkatu ziren. Galdesorta horrek hizkuntzaren datu guztiak biltzen ditu: lexikoa, fonetika, morfologia eta sintaxia. Datuak biltzeko Euskal Herri osoko 145 herri hautatu ziren:

- Euskal Autonomia Erkidegoan: Araban herri 1, Bizkaian 36 eta Gipuzkoan ere 36.
- Nafarroako Foru Erkidegoan: 27 herri.
- Ipar Euskal Herrian: Lapurdin 15, Nafarroa Beherean 18 eta Zuberoan 12.

1987an hasi zen Euskaltzaindia inkestak egiten eta 1992an amaitu. Inkesta-leku bakoitzean 2.857 itaun egin ziren. Euskaltzaindiak bildurik dituen grabazioak 4.000 ordu gora dira (batzuek beste 27 ordu herriko). Urte hauetan euskaltzain osoa hauek izan dira egitasmo honen buruak: Jean Haritschelhar, Beñat Oihartzabal, Andolin Eguzkitza eta Adolfo Arejita, gaur egungo zuzendaria dena. Bestalde, Gotzon Aurrekoetxea eta Xarles

Videgain dira egitasmoaren arduradun teknikoak. Hauetaz gain, inkestak egiten eta transkribatzen, mapak elaboratzen eta informatizatzeko lanetan hauek ibili dira: Isaak Atutxa, Iñaki Camino, Ana Maria Etxaide, Jose Maria Etxebarria, Izaskun Etxebeste, Aitor Iglesias, Gorka Intxaurbe, Jon Irigoras, Amaia Jauregizar, Juan Antonio Letamendia, Juantxu Rekalde, Koro Segurola.

320 lekuko

Inkesta egiteko adineko pertsonak aukeratu ziren, sortzez eta familiaz tokian tokikoak, bai eta herritik kanpoan gutxi ibiliak ere.

Inkestagileak saiatu ziren erantzunak mugagabeen (izen eta izenondoen kasuan) edo partizipio burutuaren forman (aditzen kasuan) jasotzen. Adibidez, erantzun gisa izen bat artikularekin bildu ondoan, lekukoari izen bera zenbatzaile batekin emateko eskatzen zitzaion, hitza mugagabeen jaso ahal izateko.

Guztira 320 pertsonaren ahotsa grabatu zen. Informazio honen guztiaren eskuzko transkribaketak 725 erantzun-koadernotan (herriko 5) bildu dira. Erantzun-koaderno hauek digitalizatuta daude eta CD-ROMetan gorde, paperezko bertsioaz gain.

Lexikoari dagokion galdesorta da luzeena. Hura osatzerakoan Euskal Herriko egoera geografikoa gogoan hartu zen, bai eta ohiko lan jarduerak ere (artzaintza, abeltzaintza, zurgintza, nekazaritza, burdingintza, arrantza...). EHHAko sail horretako galdesorta Europako beste Herrietan, eta bereziki inguru hurbilekoetan, egindako hizkuntza atlasak gogoan izanik moldatu da, eta lan haietako erreferentziak agertzen dira galderen izenburretan.

Hauek dira gai nagusienak:

- Abereak
- Zerua, denbora eta eguraldia
- Lehorra eta itsasoa
- Arbolak eta landareak
- Etxe-abereak eta hazkuntza
- Baserri etxea.
- Baserriko jarduerak, tresnak eta ekoizpena.
- Gorputza, eritasunak eta familiako bizitza.
- Gizarteko bizitza eta lan mundua.

Lexiko galdera gehienak, inkesta leku guztietan galdetzeko pentsatuta daude. Haietaz kanpo badira beste galderak, itaun bereziak deituak izan direnak, leku jakin zenbaitetan baizik egin ez direnak, toki horietako egoerari edo jardunbide berezi batzuei baitagozkie oroz

gainetik: adibidez, itsas arrainen izenez egin-dako galdera gehienak itsas portuetan baizik ez dira egin, eta ahatez egindakoak, ahate hazkuntza egin ohi den herrietan baino ez.

Morfologiari eta, oro har, gramatikari dagozkien galderak ez dira ohikoak hizkuntza atlasetan, baina gero eta leku handiagoa ematen zaie gaur egungo lanetan. Bonaparteren lanak kontuan izanik, badakigu euskararen dialektologian, toki garrantzitsua izan dutela. Sail horretako galderak, noski, euskararen arabera pentsatuak izan dira.

Sintaxiari dagokionez, galdera gutxiago da, baita fonetika sintaktikoaren kasuan ere.

Emaitzak kontsultatzeko

EHHaren emaitzak bi modutan kontsulta daitezke: soinuak datuen kontsultaren bidez eta datu transkribatuen kontsultaren bidez.

- Soinuzko datuen kontsulta. Azkue Bibliotekan ikertzaileen esku dira CD-ROMak (4.000 ordu baino gehiago dutenak).

- Datu transkribatuen kontsulta. Kontsulta hau nor bere etxean egin ahal du bi molde desberdinetan: liburu edo CD-ROM batean. Bestalde, sarean ere jarri du Euskaltzaindiak lehen eta bigarren liburukien edukia: www.euskaltzaindia.net/ehha

Lehenengo bi liburukiak

Lehen liburukiak 268 galderaren erantzunak eskaintzen ditu, gai hauei buruz: intsektuak, itsas arrainak, ibai arrainak eta ibai arrantzako tresnak, narrastiak eta urpekoak, txoriak, basa animaliak eta ehizako arteak, eguzkia eta zerua, eguraldia, elurra eta hotza.

Bigarren liburukian aztertu eta landu diren esparruak hiru dira: denbora kronologikoa, topografia eta landaretzaren lehen atala. Denborarenean, esaterako: astearen egunak, hilabeteak, urtaroak, eta euretariko bakoitzaren parteak landu dira; baita oraingo, lehenengo eta geroko denbora-unitateak ere.

Andres Urrutia (Euskaltzaindia),

Txomin Garcia eta Julio Gallastegi (Euskadiko Kutxa)





Joseba Zabaleta Zendagorta

Joseba Zabaleta, Euskaltzaindiko kudeatzaile

Euskaltzaindiko kudeatzaile berria Joseba Zabaleta Zendagorta da. Juanjo Zearreta zenaren heriotzaren ondorioz, Akademian zegoen hutsunea beteko du Zabaletak.

Joseba Zabaleta Gernikan jaio zen, 1967an. Administrazio eta Finantzetan lizentziatua da eta MEGA Masterra dauka, biok Deustuko Unibertsitatean egindakoak. Ibilbide luzea egin du enpresa eta sektore desberdinetan, hala nola Vodafonen (lehen Airtel izandakoa). Bertan hamabi urte egin zituen, hasierako zazpiak Zamudion, egoitzako Administrazio eta Finantza Zuzendari bezala. Azken 5 urteetan, Madrilen jardun zuen, *Controller* gisa. Euskal Herrira itzuli ostean Zamudion, Bizkaiko Teknologia Parkean egoitza duen industriagintza sektoreko enpresa batean, A&F eta Giza Baliabideen Zuzendaria izan zen.

Euskaltzaindiaren argitalpenak sarean

Euskaltzaindiak honako argitalpenok jarri ditu sarean, guztion eskuragarri izan daitezen:



Pedro Irizarren

*Morfología del verbo auxiliar vasco
(lan osoa)*

Paperezko argitalpenak



www.euskaltzaindia.net/mvav helbidean kontsulta daiteke



Izen ttipiak euskaraz

“Onomastica Vasconiae” 26

Patxi Salaberri Zaratiegi

Antonio Arrue: Idaztiak eta hitzaldiak

“Euskaltzainak” 5

Antonio Zavalak prestatua

Domingo Agirre: Gutun bilduma

“Euskaltzainak” 6

Sebastian Gartzia Trujillok prestatua

Biziaren hiztegiak

“Euskaltzainak” 7

Txomin Peillen

Estigmatizados por la guerra

“Euskaltzainak” 8

Gorka Aulestia

Zuberoako literaturaz. Antologia laburra

“Euskaltzainak” 9

Jean-Louis Davant

Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa

“Jagon” 7

Euskaltzaindiaren Jagon sailaren

Corpus batzordeak landua, Pello

Ensalek koordinaturik,

Sakanako euskara. Burundako hizkera

Ekainaren 2an, *Sakanako euskara. Burundako hizkera* liburua aurkeztu zuten Euskaltzaindiak eta Nafarroako Gobernuak, Iruñean, Euskarabidearen egoitzan. Liburua Koldo Zuazo hizkuntzalari eta euskaltzain urgazleak idatzi du eta aipatu bi erakundeek argitaratzen duten "Mendaur" bildumaren zortzigarren zenbakia da.

Liburuaren izenburuak adierazten duen bezala, liburuak Burundako eta, azken batean, Sakanako euskara dakar plazara. Bi atal nagusi ditu: Burundako hizkeraren ezaugarriak eta dialektologia.

228 orr. ISBN: 978-84-235-3204-9

12.00 €

Helduen euskalduntzea eta etorkinak Ipar Euskal Herrian

Ekainaren 28an, *Helduen euskalduntzea eta etorkinak Ipar Euskal Herrian - L'enseignement du basque aux adultes natifs et non natifs en Pays Basque Nord* liburua aurkeztu zuen Euskaltzaindiak, Akademiaren Baionako ordezkarietan. Liburua Erramun Baxok ohorezko euskaltzainak eta Jean-Baptiste Coyos euskaltzain urgazleak prestatu dute. Ipar Euskal Herriko AEKren laguntzarekin egin da, eta Euskararen Erakunde Publikoaren babesarekin argitaratu.

Liburuak euskara ikasten duten Ipar Euskal Herriko helduen ezaugarriak aztertzen ditu, herrikoenak eta etorkinenak bereiziz. Etorkin horiei buruzko datu sozio- eta demolinguitikoak azaltzen dira eta herrikoenei konparatzen.

308 orr. ISBN: 978-84-95438-61-4

18.00 €

Hauek guztiak www.euskaltzaindia.net/dok/iker_jagon helbidean kontsulta daitezke



EUSKALTZAINDIAREN ARGITALPENAK ESKATZEKO:

jartza@euskaltzaindia.net

Plaza Barria, 15. 48.005 BILBO

Tel: +34 944158155

Faxa: +34 944158144